



# **ONARPEN-PROZESUA**

## **HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**

### **MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK**

**2020-2021 IKASTURTEA**

**Eskariari eta ikastetxea aukeratzeko askatasunari buruz****Zenbat eskabide aurkez ditzaket?**

Bat. Bat baino gehiago aurkeztuz gero, ez da horietako bat bera ere kontuan hartuko.

**Horrek esan nahi al du ikastetxe bat bakarrik eska dezakedala?**

Ez. Zure eskaeran gehienez hamabi eskaera egin ditzakezu. Eskaera bakoitzak ikastetxe bat eta hizkuntza eredu bat ditu.

**Berdin al dio zein ordenatan eskatzen ditudan eskaerak?**

Ez. Bere lehentasunen arabera ordenatu behar dituzu eskaerak, esleipenean ordenazio horren arabera ahal duen onena esleituko zaizulako.

**Ikastetxe berean jarraitzeko eskaera aurkeztu behar dut?**

Gaur egun bi urteko edo hortik gorako mailan matrikulatuta badago eta hizkuntza-eredu berean jarraituko badu, haren iraupena bermatuta dago, baldin eta ikastetxeak ikasten ari denaren hurrengo maila ematen badu.

**Dagoeneko ikastetxe bateko urtebeteko gelan badago, ikastetxe berean bi urteko mailan jarrai al dezake, eskaera aurkeztu beharrik gabe?**

Ez. Ikasleak gure hezkuntza-sisteman bi urteko edo hortik gorako mailan sartzen dira. Ondorioz, ikastetxe batean urtebeteko mailan matrikula badu eta bertan bi urteko mailan egon nahi badu, onarpen prozesuan parte hartu behar du eta dagokion eskaera aurkeztu.

**Eskabidea aurkeztu behar al dut nire ikastetxean hizkuntza-eredua aldatu nahi badut??**

Bai, hizkuntza eredu berean jarraitzea bakarrik duelako bermatuta.

**Eska al dezaket gaur egun ikasten ari denaren hurrengo maila, edo maila bera, nire ustez mailaz igoko dudan edo errepikatuko dudan kontuan hartuta?**

Ez. Onarpen-prozesu honetan (arrunta), ikasten ari denaren hurrengo mailarako baino ezin duzu aurkeztu eskabidea.

**Guraso bananduen kasuan, ba al dago berezitasunik?**

Bi alderdien arteko adostasuna behar da eskaera izapidetzeko, salbu eta epai judizial batek baimena ematen badio bakarrik gurasoetako bati, ikastetxea batean onartzeko edo lekuz aldatzeko eskatzeko. Adostasunik ez badago, ezingo da eskaera izapidetu harik eta hori baimentzen duen epai judiziala aurkezten den arte.



## **Eskaera aurkezteari buruz**

### **Nola aurkez dezaket eskabidea?**

Bi modutan: Internet bidez (on-line) edo aurrez aurre, zure lehen aukerako ikastetxean.

### **Zein da eskaera aurkezteko epea?**

Aurrez aurre, 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra, biak barne. On-line, 2020ko urtarrilaren 27tik otsailaren 6ko 24: 00ak arte, biak barne.

### **Abantailarik ba al dut eskaera Internet bidez aurkezten badut?**

Eskaeraren eragina berbera da, baina horrela egiten baduzu, ez duzu eskatzen duzun zentroraz/zentroetara joateko beharrik. Era berean, eskaneatuta, eskatutako dokumentazioa erantsi ahal izango duzu, bai nahitaezkoa, bai baremoaren puntuazioa lortzeko gehitu nahi duzuna.

### **Zer dokumentazio aurkeztu behar al dut nahitaez?**

- Ikaslearen familia-liburuko fotokopia edo dokumentu baliokidea.
- Familia liburuan aita/amaren orriaren fotokopia edo lege-tutorea izatearen ziurtagiria.
- Ikaslea familia-harreraren egotekotan, berezko ziurtagiri ofiziala.
- Aita, ama edo tutorearen NAN/AIT.
- Familia-eroldaren ziurtagiria.
- Familia banandua edo dibortziatua izatekotan, Hezkuntza Sailak ezarritako berezko protokoloa bete izanaren agiria.
- Hezkuntza Premia Bereziakotako galde-sorta (premia bereziakotako ikaslea dela adierazten bada).
- EAEtik kanpo ikasten badu eta Lehen Hezkuntzan edo DBHn onartzeko eskatzen badu, egindako ikasketen ziurtagiria, gaur egun egindako maila zehaztuta.

### **¿Zer dokumentazio aurkeztu behar dut baremoko puntuak lortzeko?**

- Bizilekuaren araberrako eremu-puntuak lortzeko, derrigorrez aurkeztu behar duzun familia-eroldaren ziurtagiria.
- Familia-errentagatikotako puntuei dagokienaz, EAEn bizi bazara, Foru Ogasunean errenta-datuak egiaztatzeko baimen-idazkia. EAEtik kanpo bizi bazara, 2018ko errenta-aitorpenaren fotokopia.
- Seme-alaba adingabeen kopuruaren araberrako puntuetarako, hori egiaztatzen duen familia-liburuaren fotokopiak edo beste dokumentu balikideak.
- Familia ugarikotako puntuei dagokienaz, EAEn bizi bada, nahikoa da Hezkuntza Sailari baimena ematea egoera hori Enplegu eta Gizarte politiketako Sailean kontsultatzeko. Bestela, titulu ofizialaren fotokopia.
- Baremoko gainerako ataletarako (aita edo amaren lantokia, eskatutako ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak, familia-harrera, norbere edo senideen ezgaitasuna, kooperatibista izatea edo Ordezkaritza Organo Gorenak -OOGk- edo ikastetxeko Eskola Kontseiluak onartutako irizpideak), kasu bakoitzean eskatutako dokumentazioa.

### **Eskaera aurrez aurre aurkeztu nahi badut, non egin behar dut?**

Lehenengo aukeran adierazitako ikastetxean eta hark ezarritako idazkaritza-ordutegian

**Eskabidea aurrez aurre aurkezten badut, kudeaketa osoa egin al dezaket lehen aukeratutako ikastetxean?**

Bai, baldin eta eskabidean eskaerak ikastetxe bakarrerako badira, edo eskatutako ikastetxea edozein dela ere ematen diren baremo-puntuak bakarrik nahi baduzu (familia-errenta, familia ugaria, harrera, desgaitasuna ematen direnak) edo hurbiltasunaren arabera puntuak (kasu honetan zentro bakoitzerako, errolda-ziurtagiriaren arabera barematuko da, edo, hala badagokio, aitaren edo amaren lantokia egiaztatzen duen enpresa-ziurtagiriaren arabera).

Baina ikastetxe bakoitzean kooperatibista izateagatik, OOGko puntuengatik edo ikasten edo lan egiten duten senitartekoak izanagatik berariazko baremo-puntuak eskuratu nahi badituzu, ziurtatu behar duzu eskatutako zentro bakoitzean eta kasu bakoitzean eskatutako irizpidea betetzen dela; horretarako, hala dagokionean, beharrezkoa den egiaztagiria aurkeztu beharko duzu zentro bakoitzean eta beti epearen barruan.

Beste ikastetxeen baremo espezifikorako dokumnetazio hori entregatzeko, beharrezkoa da aldeztu aurretik eskabidea lehen aukerako zentroan izapidetu izana.

**Epez kanpo aurkeztu izango ahal dut dokumentazio gehigarria?**

Ez. Epean nahitaezko dokumentazio guztia aurkezten ez badu, eskabidea osatu gabe geratuko da, eta ez da kontuan hartuko plazak esleitzerakoan. Bestalde, esleipenean ez dira kontuan hartuko epe barruan egiaztatu gabeko baremoko puntuak.



## Esleipenari buruz

### Nola egiten da esleipena?

Atxikitako ikastetxeetatik datozen hiru urteko gela, Lehen Hezkuntzako I. maila eta DBHko I. maila onartzeko eskaerak lehentasuna dute atxiki gabeko ikastetxeetatik datozenen aldean.

Jasotako eskaeren kopuruak ez badu gainditzen lanpostu libreen kopurua, eskatzaile guztiak onartuko dira.

Eskaera-kopuruak plaza libreen kopurua gainditzen badu, baremazio-irizpideen arabera ordenatuko dira, eta puntuazio handiena duten pertsonak soilik eskuratu ahal izango dute lanpostua, plaza libreak osorik bete arte.

### Plaza bat baino gehiago esleitu daiteke?

Ez. Esleipena bakarra eta orokorra da, eta pertsona bakoitzari plaza bakarra esleitu ahal izango zaio.

### Ziurtatuta daukat plaza bat esleituko zaiola?

Ez. Plaza bat esleituko zaizu baldin eta gutxienez zure eskaeretako batean plaza gehiago badaude zure puntuazio bera duten eskariak baino.

### Zein egoeratan geratuko da 2 urteko mailan plazarik lortzen ez badut??

2 urteko mailan, plaza erabilgarriak dituzten ikastetxeek ohiko epea amaitzen denetik ikasturtea hasi arte jaso dituzten edo jasotzen ari diren eskaerei erantzun ahal izango diete.

### Eta zein egoeratan geratzen da gainontzeko mailetan plazarik lortzen ez badu?

Datorren ikasturtean egonaldia bermatuta duen ikastetxe batean ikasten badu, bertan jarraituko du. Gaur egun ezein ikastetxetan matrikulatuta ez badago, Lurralde Ordezkaritzak plaza bat esleituko dio ofizioz, eta uko egin ahal izango diozu, zure kabuz beste bat bilatu nahi baduzu.

### Seme edo alaba bat baino gehiagorentzako eskaera aurkezten badut, bermerik ba al daukat bati plaza esleitzen bazaio bestea automatikoki onartuko dela?

Ez. Onarpen-prozesuak banakako eskaerei erantzuten die, eta pertsona baten eskubideak ezin dira beste bati eskualdatu. Hala, familia bereko bi kide bananduta gera daitezke onarpen-prozesuaren ondorioz: pertsona batek onarpena lor dezake eta besteak ez; edo biak onartuak izan daitezke, baina ez zentro berean.



## **Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleak atxikitako Institutura zuzenean sartzeari buruz**

**DBH ematen ez duen ikastetxe batean Lehen Hezkuntzako 6. maila egiten badu, eskabidea aurkeztu behar al dut atxikitako institutura (ibilbidekoa) sartzeko?**

Ez, ondoko kasauk salbu:

- Hizkuntza-eredua aldatu nahi badiozu.
- Institutu bat baino gehiago atxikitzea (ibilbidekoa) eta horietako bat aukeratu behar izatea

**¿ Zein dira hizkuntza-eredu bererako institutu (BHI) bat baino gehiago atxikita dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak (HLHI), eta ikastetxe horietako ikasleek aurkeztu behar dute onarpen-eskaera?**

Onartzeko aginduaren I. eranskinean zerrendatuta daudenak:

- CEIP Ángel Larena HLHI (Artzentales), IES Balmaseda BHIri eta IES Zalla BHIri atxikia.
- CEIP Basurto HLHI, CEIP Cervantes, CEIP Indautxuko Eskola HLHI eta CEIP Juan Manuel Sánchez Marcos HLHI, IES Martín de Bertendona BHIri eta IES Miguel de Unamuno BHIri atxikiak (denak Bilbaon).
- CEIP Otxandio HLHI, CPI Ikasbidea Ikastola IPIri (Arrazua-Ubarrundian) eta IES Juan Orobiogoitia BHIri atxikia (Iurretan).
- CEIP Aiete HLHI (Donostia), IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHIri eta IES Antigua-Luberri BHIri atxikia (biak Donostia).
- CEIP Bizarain ikastola HLHI (Errearterian), IES Bizarain BHIri eta IES Koldo Mitxelena BHIri atxikia (biak Errearterian).

**Atxikitako zentro batean sartzeko lehentasuna izan arren, eska dezaket beste zentro bat?**

Bai. Atxikitakoaz bestelako ikastetxe bat eskatzeko edo Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko I. mailara igarotzean eredua aldatzeko onarpen-prozesuan parte har dezake, azken kasu horretan ikastetxe atxikia izan ala ez. Hala ere, kontuan izan behar da zuzenean sartzeko lehentasuna izango duela soilik inolako eskaerarik aurkezten ez duenak edo atxikitako zentroak lehen aukera gisa eskatzen duenak.

**Informazioa eta zerrendak eskuratzeari buruz****Non kontsulta dezaket hurbiltasunagatik ikastetxeetan dagokidan puntuazioa?**

Hezkuntza Sailaren Ikasgunearen atarian (<https://ikasgunea.euskadi.eus/es>), "Puntuak, egoitza ikastetxe bakoitzetik hurbil dagoelako" atalean.

**Non kontsultatu ahal izango ditut eskatzaileen eta onarpenen zerrendak?**

Prozesuaren gardentasuna eta datu pertsonalen babesa uztartzeko, eskatzaileen eta plazaren esleipenaren zerrendak ez dira ikastetxeetako iragarki-tauletan argitaratuko. Interesdunek "ikasgunea" ataritik eskuratu ahal izango dituzte era guztietako zerrendak, eskatu duten ikastetxe, maila eta eredu bakoitzerako. Horretarako, aldez aurretik erregistratu beharko da atari horretan. Interneterako sarbiderik ez baduzu, plaza eskatu duzun zentro bakoitzean banakako sarbidea eskatu ahal izango duzu dagokion mailaren eta ereduaren zerrendara.

**Musika-ikasleentzako sarbide-lehentasunari buruz****Musika ikasten dut eta onarpen-prozesuan parte hartzen dut. Lehentasuna al dut gainerako pertsonen aldean?**

Ez beti; ia inoiz ez. Zuk Musika edo Dantzako ikasketa arautuak egin eta onarpen-aginduen III. eranskinean ezarritako Bigarren Hezkuntzako institutueta batean sartu nahi baduzu bakarrik duzu lehentasuna. Dantzako ikasketa arautuak egiten badituzu, zentro bakarra duzu Araban. Musikako ikasketa arautuak egiten badituzu, ikastetxe bakarra duzu Araban, beste bat Gipuzkoan eta lau Bizkaian.

**Musika eta Dantzako ikasleek lehentasuna duten institutu horiek curriculum berezia ematen al dute?**

Ez. Bigarren Hezkuntzako institutu arruntak dira.

**Bateragarri egin al ditzaket musikako eta dantzako ikasketa arautuak Bigarren Hezkuntzako beste edozein ikastetxetan?**

Jakina; hala egiten dute ikasle gehienek.